

A [HA] L, -A ETA Ø DIRELA ETA PROPOSAMENA

Arrasate, 1979-XII-23

Endrike Knörr

Ahal sailkatu nahi izanez gero, honetara egin genezake:

1) **Aditza.** Adibidez:

Ikusi ahal dut edo Ikusten ahal dut.

Ikus dezakegu.

Ezin konta ahal bekatu. (Agirre Asteasuko, *Erakusal-diak*, I, 268).

Ikus ahala urrun, "aussi loin que se peut voir". (Ithurri, 39)

Sartu ahala hiltzen zituen.

Ahal azken hiru exenpluotan zail da jakiten aditza ala partikula den, baina bego: sail honetan sartu dugu.

2) **Izena.** Adibidez:

Zoin bere ahalen arabera. (Ithurri, 24)

3) **Galde retorikoak egiteko partikula.** Adibidez:

Bakharra ahal iragan zara Ierusalem hoin arrotz zarena, non ezpaitakizu zer iragen izan den azken egun haue-tan? (Haraneder, Lk. 24, 18).

4) **Perpau desideratiboak egiteko partikula.**

Exenpluak:

Agur, Aita nerea, ta gogoango al nazu zure otoitzetan.
(Larramendi, *Eskualdunen Loretegia* deritzan antologian, Baiona 1931, 69. orr.)

Ilko al-duk. Amen. = "Así se muera. Amén."

Itoko al-duk. Amen. = "Así se ahogue. Amén."

Lertuko al-duk. Amen. = "Así revienta. Amén."

Tximistak eřeko al-dik. Amen. = "Así lo abraza el rayo. Amén."

Lupuak jango al-dik. Amen. = "Así lo coma el lobanillo. Amén."

Lepezurřa autsiko al-dik. Amen. = "Así se rompa el pescuezo. Amén."

Amaika milla demoniřok erámango al-tek. Amen. = "Así lo lleven once mil demonios. Amén."

(M. Lekuona, *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, III (1923), 85. orr.)

Onezkerok ez al dugu porrot egingo. (Orixe, *Karmel aldizkarian* agertu gutunetan, 4 (1979).

Bidean... zortzialdirako bederen iritxiko al zaizu. (*Ibidem.*)

Hauxe du gogoan Lafitte apaizak, naski, *ahal*-en "sense votif" delakoaz mintzo denean (*Grammaire Basque*, 350. orr.). Bidenabar esanda, desideratzen den hori pasea bada, aditz nagusia ez dugu futuroan izango. Hona Lafitte apaizaren bi esenplu:

Bere aitetamak ikusi ahal ditu, "il faut espérer qu'il a vu ses parents". (Ikusi, ez ikusi, iragana da.) *Ikusiko ahal du*, "il faut espérer qu'il le verra". (Gerorako desira.)

5) **Dudazko perpausak egiteko partikula.** Oso guti erabilia.

Exenplua:

Ordean nihor ez ahal da, ehun urte thormenta handitan iragan nahi lituzkenik, hetarik lekhora oren-laurden batez atseginetan egotekotan: nihor ez ahal da hoin zentzu-gaberik, ta bere buruaren hoin etsai denik. (Duhalde, *Medit.*, 199)

6) Horrez gain, egungo gipuzkerak *a [ha] l galde arruntetan* sartzeko joera du. Partikula hori bestelako galde-partikularik (*non, zer, ote*, eta abar) ez denean agertzen da, inolako marka semantikorik gabe.

Zentzu honetan, jakina, oso berria da. Ubillosengan, esaterako, ez da aurkitzen, Mitxelenak behin oharrerazi zidanez, eta alferrik da autore adinkideetan eta are harez gerokoetan bilatzea. Azkuek berak, bere Hiztegian, ez du *ahal* galdepartikulatzat jotzen, bai ordea bere *Prontuario*-n erabiltzen:

ezalduzu belarririk (60. orr.)

Batentzako lan geitxo ezalda? (95. orr.)

Gerra ondoko belaunaldian zabaldu da usadio hori Gipuzkoako autoreetan. Salvatore Mitxelenak, esaterako, maiz erabiltzen du.

Ezaguna da gainerako euskalkiek ez dutela horrela erabiltzen galde arruntetan. Ekialdeko zenbait hizkeratan *-a* atzizkia aurkitzen dugu (*a*, *o*, *u* bokalen atzean *-ia* bihurtzen dena):

Jakin duka berria?

Ikusi duzuia?

Nika?

Hemena?

Baia?

Eza?

Ikaspideetan bilatzen badugu erabilera hau, ikusgarria da nola gipuzkoarrek egindakoetan bakarrik ageri den, hots, *Euskara hire laguna*, *Jalgi hadi* eta *Método radiofónico*-n.

Harrigarria da hau: tradiziorik eta hedadurarik gabeko usadio batek nolako **nagusideria** hartu duen. Baina ez da hori dena. A [ha] l partikula galde arruntetan sartzen bada, *ahal* aditza ostenduz doa, galduz doa.

Hortaz, euskararen onerako, ken dezagun betiko *a* [ha] l galde arruntetatik... garaia deno. Eta otoi tradizio, eta literatur euskararen defendatzaile eta aitzindariak ez daitezela eskandalu-harri izan.